# TAL DE TA SUNA

## LIBE
21 urte

"Nire ustez sare sozialetan bertan talde bat sortzea super zaila da. Azken finean, talde sendo eta kohesionatu bat sortzeko ezagutza handia behar da. Eta sare sozialen bidez, denok dakigu nahi duguna erakusten dugula, eta gauza asko ezkutatzen"



## UNAI
22 urte

"Nik badaukat nire kuadrila nuklearra, txikitakoa, eta tope ondo eramaten gara eta asko maite gara. Baina nire ustez oso obsoleto dagoen kontzeptu bat da; ez kuadrilarena, baizik eta kuadrilismo eredua. Oso eredu sektarioa iruditzen zait eta oso harreman dependienteak sortzen dituela"



## IRURI
22 urte

"Nire ustez kolektiboa eta norbanakoa elkarreraginean daude. Eta gure irudia besteek gugandik duten irudi horretatik eraikitzen dugu"





## NETSANET
18 urte

"Niri bakardadeak ez dit beldurrik ematen. Badaukat beharbada harreman berezi bat bakardadearekin. Nik beharrezkoa dut bakarrik izatea, eta ez dit trabatzen besteek ni bakarrik ikustea"



## AIMAR
19 urte

"Nik askotan irudikatzen dut nire euskalduntasuna defentsa posizio batetik. Eta askotan bai sentitzen dudala nire identitate pertsonala identitate kolektibo baten barruan: euskalduna, Euskal Herrikoa…"

GERUZAK

Taldetasunaren gaiak zer galdera sortzen dizkizu?

{ Taldea hitza esan eta zer da gogora datorkizun lehenengo gauza? }

# Zer da TALDEA zuretzat?

## TALDETASUNA erlazionatzen dut...

ETA ZEIN LAU ADITZEKIN ERLAZIONATZEN DUZU?

- o
- o
- o
- o

Taldea esan eta zer OROITZAPEN datozkizu?

| OROITZAPENA | ONA | TXARRA | BESTERIK GABE |
|---|---|---|---|
| | X | | |
| | | X | |
| | | | X |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

{ Taldea zuretzat zerbait positiboa da? Negatiboa da? }

Taldeko izateak zer garrantzia du zuretzat?

BATERE EZ — ERABATEKOA

ZU ZEIN TALDETAN ZAUDE?

Zein momentutan sentitu zara talde bateko kide? Zergatik?

Zein momentutan sentitu zara talde batetik kanpo? Zergatik?

Beste talderen bateko kide izan nahiko al zenuke?

Kide zaren talderen batetik atera nahi zenuke?

Zerk markatzen edota baldintzatzen du zein taldetan zauden eta zeinetan ez? Eman adibideak.

ZEIN DIRA TALDE OSASUNTSU BATEN EZAUGARRIAK?

ZEIN DIRA TALDE TOXIKO BATEN ZANTZUAK?



“Euskal Herrian kuadrilaren kategoria sozial horrekin badaukagu lagun-taldetasunaren ideia nahiko zurrun bat, nahiko itxia. Ez da hala beste leku askotan. Eta irmotasun horrek, beste harreman batzuk izan ahal duten malgutasunarekin konparatuta, badauzka bere abantailak eta bere desabantailak

Zein direla uste duzu abantailak edo aukerak, eta zein desabantailak edo arriskuak?

# TALDEAN bai, baina nola?

Norbanakoa eta kolektiboa elkarreraginean al daude?
ZERTAN?

Norbera izatea eta taldearen parte, onartua izatea, teinka bat da ala erraz uztartzen dituzu?



Zure buruaren kontra egin al duzu taldean onartua izateko?

Zure ezaugarri edo iritziren bat baztertu edo ezkutatu al duzu inoiz onartua izateko?

Besteen onespena jaso eta taldean onartua izateko norbaiten kontra egin al duzu noizbait zerbait?

Taldean onartua izateko egin al duzu gaur egun damutzen zaren zerbait? Gaur egun berriz egingo al zenuke?

Parte zaren talderen batek edo batzuek pertsona gisa zure alderdirik onenak ateratzen laguntzen al dizute?

Kide zaren taldeetan zaindua sentitzen al zara? Babestua eta zaren bezala onartua?

Kide zaren talderen batek edo batzuek laguntzen dizute zure buruarekin lasai eta gustura egoten?

Sentitu duzu talderen batean zure askatasuna, ahalduntzea eta bizipoza elikatu direla?

Zure eguneroko talde bizipenak, oro har, non kokatzen dituzu?

ASKE — ITOGARRI

Talde barruan dinamika arriskutsuak sortzen al dira? Eman zuk bizi izan dituzun bizpahiru adibide.

Utzi duzu talderen bat eremu edo harreman toxikoak bizi zenituelako bertan?

Sartu zara talderen batean aurrez bazenekielako taldetasun osasuntsua eta zaintzailea zutela?

## Talde bat orekatua, irekia eta askea izan al daiteke? Nola?

### TALDE OREKATUAREN EZINBESTEKOAK

- o
- o
- o
- o

### TALDE IREKIAREN EZINBESTEKOAK

- o
- o
- o
- o

### TALDE ASKEAREN EZINBESTEKOAK

- o
- o
- o
- o

Zuk ezagutu duzun talde zaintzaile, osasuntsu, orekatu, ireki edota aske baten adibiderik eta deskripanik ematerik bai?

Hortaz, zein da taldean ongi jokatzeko eta ongi egoteko ZURE aholkua?



# Mundu birtualean TALDETASUNIK bai?

Taldeak aurrez aurrekoak ala birtualak nahiago?

Sarean sortu al liteke talde bat?

Benetako talde bat sortzeko aurrez aurreko harremana beharrezkoa al da?

Ba al duzu soilik birtuala den talderik?

Ba al duzu soilik aurrez aurrekoa den talderik?

Berdin "erreala" al da aurrez aurre bizi duzuna eta sarean bizi duzuna?

Desberdintzen al dituzu aurrez-aurreko taldeak eta birtualak? Zertan dira berdin eta zertan desberdin?

| = | ≠ |
|---|---|
| | |

Aurrez aurreko harremanek zer ematen dizute birtualek ematen ez dizutena? Eta alderantziz, harreman birtualek zer ematen dizute aurrez aurrekoek ez dizutena ematen?

| AURREZ AURREKOA | BIRTUALA |
|---|---|
| | |

Aurrez aurreko talde gehiagotako kide izatea nahiko al zenuke?

Online bidezko talde gehiagotako kide izatea nahiko al zenuke?

# Euskal komunitateko KIDE sentitzen al zara?

Zu euskal komunitateko kide sentitzen al zara?

EUSKALDUNA SENTITZEN AL ZARA?

**Zergatik bai eta zertan bai?**

- 
- 
- 
- 

**Zergatik ez eta zertan ez?**

- 
- 
- 
- 

**Noiz sentitu duzu komunitate horretako kidea zarela edo ez zarela? Eman adibideren bat.**

Euskaraz harremantzea gustatzen zaizu?

- [ ] BAI
- [ ] EZ
- [ ] BATZUETAN
- [ ] EZ DAKIT

Zergatik?

Euskarazko talderik baduzu?

Kide zaren talderen batean euskara garrantsitzua da? Zergatik da garrantzitsua?

Nahiko zenuke euskarazko talde gehiagotako kide izan?

ZU ZEIN KOMUNITATE KULTURALETAKO KIDE SENTITZEN ZARA?

Komunitate kultural bateko (edo gehiagoko) kide izateak zer ematen dizu?

EZAGUTZA
PROIEKTUAK
ERROTZEA
HISTORIA
ETORKIZUNA
GARAPENA
IDENTIFIKAZIOA
KIDETASUNA
TALDELANA
KULTURA
GENEALOGIA
ETXEA
AUZOLANA
JAKINTZA
INDARRA
SINBOLOAK
IDENTITATEA

Garrantzitsuak dira zuretzat ideia hauek?:

SINESMENAK
ELKARTASUNA
SAREA
HERRIGINTZA
ORAINALDIA
HARREMANAK
OHITURAK
PERTENENTZIA
AMETSAK
SUSTRAIAK
BIZITZEKO LEKU BAT
BELDURRAK
KOMUNIKAZIOA
BILGUNEA
ATXIKIMENDUA
ERREFERENTEAK
NORTASUNA
ERALDAKETA
ZAINTZA
MEMORIA
KOMUNITATEA
ONDAREA

Taldetasun batek eman al ditzake horiek?

Bizitzako zailtasunak elkarrekin eraman errazagoak al dira?

Genero berdintasunaren aldeko aldarriak taldearen indarra behar al du?

Bizitzako zapalkuntzak elkarrekin erantzun errazagoak al dira?

EUSKARAREN ALDEKOAK?
ARRAZAKERIAREN KONTRAKOAK?
IDENTITATE SEXUAL ANITZEN ALDEKOAK?
POBREZIAREN KONTRAKOAK?
INGURUGIROAREN ALDEKOAK?
...

ERALDAKETA SOZIALEK TALDETASUNA BEHAR AL DUTE?

# Eta BAKARDADEA zer?

ZER DA BAKARDADEA ZURETZAT?

BAKARDADEAREN GAIAK ARDURATZEN AL ZAITU?

BAKARDADEARI BELDURRIK BA AL DIOZU?

**Inoiz sentitu al zara bakarrik?**

BAI · ASKOTAN · BETI · INOIZ EZ · EZ DAKIT · BATZUETAN · EZ · GUTXITAN

Bakarrik al zaude? Bakarrik al gaude?

Bakarrik dagoen jendea ezagutzen al duzu?

Lagundu al diozu inoiz bakarrik dagoenari?

Bakardadearen gaiaz lagunekin edo ingurukoekin hitz egiten al duzu?

BESTEEK ZU BAKARRIK IKUSTEAK LOTSATZEN AL ZAITU?

Pertsona batzuei bakardadeak gehiago erasaten al die?

GURE GIZARTE- ETA BIZI-EREDUAK BAKARDADEA SUSTATZEN, INDARTZEN AL DUTE?

Bakardadea estigma bat al da?



> Taldeak sarritan osatzen duten indibiduoak kamusteko joera izaten du, berezitasunak apurtzeko joera. Baina ziur aski talderik sendoenak bakar-bakarrik oso luzaro egoten dakien jendeak osatutakoak izaten dira. Deleuzek zioen hezkuntzaren helburu nagusia ikasleari luzaro bakarrik egoten erakustea izan behar zuela.

Garrantzitsua ote da bakarrik egoten, bakarrik bizitzen ikastea? Zergatik? Zertarako?

Bakarrik bere buruarekin ondo egoten dakienak taldean hobeto, osasuntsuago egoten ote daki?

Bakarrik ondo egoten gehiago ikasi beharko al genuke?

Ala bakarrik zenbat eta gehiago egon taldeko bizikidetza gero eta zailagoa egiten zaigu?

Bakardadea emankorra eta ederra izan al liteke?

Bilatzen al duzu batzuetan nahita bakardadea?

Zure buruarekin bakarrik gustura, ondo zaude? Ala zure buruarekin bakarrik egoteak sentipen ezkorrak pizten dizkizu?

ZEIN DA ZU ONDO EGOTEKO BEHAR DUZUN DENBORA PROPORTZIO EGOKIA:

BAKARRIK: % ____

TALDEAN % ____

Zuk zer eskatzen diozu bakardadeari ona izan dadin?

Zuk zer eskatzen diozu taldetasunari ona izan dadin?